

**1999KO UZTAILAREN 15EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO APARTEKO  
BATZARRALDIAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hamabosta

**HILABETEA:** Uztaila

**URTEA:** Mila bederatzehun eta laurogeita hemeretzia

**HASIERAKO ORDUA:** Hamazortziak eta erdi.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Apartekoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA:** Jon Jauregi Bereziartua jauna

**BILDUAK:** Josi Insausti Mujika  
Arantza Aseginolaza Azkargorta  
Ana Isabel Asla Egialde  
Jon Berbel Aiestaran  
Jose Antonio Guirado Tristán  
Patxi Plazaola Muguruza  
Pello Garaialde Goikoetxea  
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria  
Leire López Zurutuza  
Aimar Larrea Garín  
Jose Luis Elorza Mugica  
M<sup>a</sup> Carmen Gómez Mediavilla  
Pablo Parra Moreno

**ETORRI GABEAK:** Miren Arrate Izagirre Iriondo  
Julio Herreros Serna  
Jorge Juan Outeiral Fernandez

## **IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza**

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Hasi aurretik azalpena egingo dut, proposamen guztiak zerikusia bait daukate esan nahi dudanarekin. Dakizueneguz egoera politiko berri batean gaude eta azken finean Udal bakoitzaren gobernuak zerikusia dauka herritik kanpo gertatzen diren erabakiekin. Mahai horretan erabaki politikoak ixtear daudenez Beasaingo egoera oraindik itxi gabe dago, elkarrizketak ere ez dira hasi eta tartean Udalak baditu behar batzuk martxan jartzeko. Badaude gai batzuk aurreko legealditik izapidatzen hasiak zeudenak eta beharrezkoa da erabakiak hartzea. Horregatik Udalbatzar honi batzordeak osatzea eta Udala martxan jartzea proposatzen diot.”

### **1- AURREKO BATZARRALDIAREN AKTA**

1999ko uztailaren 3ko aktaren berri eman ondoren, Jose Luis Elorza ((PSOE)-PSE-EE/PSOE) jaunak zera dio: “Akta bakarrik euskeraz etorri zaigu eta ez dakit zergatik etorri den horrela eta nahi nuke guztioi bi hizkuntzetan banatzea.”

Beste guztiak aktari buruz zer esanik ez daukatenez, aho batez onartu da.

**2- BATZARRALDIAK.** Osoko bilkuren maiztasunari buruzko proposamena.

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak proposamenaren berri eman du, hau da: “Udalbatza Osoak gutxienez ere bi hilabetean behin egingo ditu ohiko batzarraldiak, ostegunetan eta 19etan.” Proposamena aurreko legealdian genuen maiztasuna mantentzea da, baina horrek ez du esan nahi bi hilabetan behin udalbatzarrak egingo direnik. Hilabete batzutan behar bada, udalbatzar bat baino gehiago izango dira eta beste hilabete batzutan berriz ez da udalbatzarrak izango.”

(PSOE)-PSE-EE/PSOEko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxia (EH): “Igaro den legealdian gutxi gorabehera hilabetero egin ditugu udalbatzarrak, beraz ez dugu ulertzen zer prejuiziokin erabiltzen den hemen espresio hori. Bere momentuan justifikatzeko zuzenagoa iruditzen zaigu udalbatzarrak hilero izango direla esatea eta kasu batean beharrik ez balego ez da egiten, baina ez egitea salbuespena izan dadila.”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Erabakitzen bada udalbatzarrak hilero izango direla, egitea behartuta zaude. Nik uste dut aurreko legealdian demostratu dugula ia hilabetero udalbatzarrak egiten ditugula eta urte askotan hamaika pleno baino gehiago izan dira.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Proposamenak dioenez sei udalbatzar urtean zehar egin da nahikoa izango zen. Beraz, hilabetero plenoa egitea salbuespena dela ulertu daiteke. Plus demokratikoa bezala eta ez zaigu iruditzen. Guk pensatzen dugu alderantzizkoa dela, praktikak erakutsi duelako zuzenago dela hilabetean behin jartzea.”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Neri iruditzen zait flexibleagoa eta lasaiagoa dela erabaki hau. Nahiz eta gero hilabetero plenoak egin.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV/EA, (PSOE)-PSE-EE/PSOE)

Aurkako botoak: 3 (EH)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehinego absolutuarekin onartu egin da proposamena, hau da, Udalbatza Osoak gutxienez ere bi hilabetean behin ohiko batzaraldiak egitea.

### **3- BATZORDE TXONTEGILEAK**

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak, proposamenaren berri eman du:

#### **“BATZORDE TXOSTENGILE IRAUNKORREN SORKUNTZA ETA OSAKETA**

1.- Batzorde txostengileak, izaera osagarriko organo kolegiatuak dira eta beren helburua, udalbatzaren osoko bilkuretan edota gobernu-batzordearenetan erabaki behar diren gaiak aztertzea, haiei buruzko txostenak egitea edota egindako kontsultei erantzutea da.

2.- Aurreko agintealdian, ondorengo batzorde txostengileek aritu dira Udal honetan:

1.<sup>a</sup> - Hazienda- eta Ondare-batzordea

2.<sup>a</sup> - Gobernazio-batzordea

3.<sup>a</sup> - Hirigintza-batzordea

4.<sup>a</sup> - Kultur batzordea

- 5.<sup>a</sup> - Gazteri eta Kirol-batzordea
- 6.<sup>a</sup> .- Euskara-batzordea
- 7.<sup>a</sup> - Zerbitzu- eta Landa-ingurune batzordea
- 8.<sup>a</sup> - Ingurugiro-batzordea
- 9.<sup>a</sup> - Sanitate- eta Gizarte-ongizate batzordea

3.- Alkatetza honek, Antolakuntza eta Funtzionamendu Erregelamenduko 124.2 artikulua damaizkion eskurantzak erabiliz, Udalbatza Osoari, onets dezan, ondorengo

### **PROPOSAMENA EGITEN DIO:**

**Lehenik.-** Izaera iraunkorreko ondorengo batzorde txostengileak eratu dira:

- 1.<sup>a</sup> - Hazienda- eta Ondare-batzordea
- 2.<sup>a</sup> - Gobernazio-batzordea
- 3.<sup>a</sup> - Hirigintza eta Ingurugiro batzordea
- 4.<sup>a</sup> - Kultur batzordea
- 5.<sup>a</sup> - Gazteri eta Kirol-batzordea
- 6.<sup>a</sup> .- Euskara-batzordea
- 7.<sup>a</sup> - Zerbitzu- eta Landa-ingurune batzordea
- 8.<sup>a</sup> - Sanitate- eta Gizarte-ongizate batzordea

**Bigarren.-** Kontuen Batzorde Bereziaren funtzioak, Hazienda- eta Ondare-batzordeak beteko ditu.

**Hirugarren.-** Batzorde txostengile guztiek, astero egingo dituzte beren bilerak eta Batzordeburuaren esku gelditzen da bilera horiek egiteko eguna eta ordua jartzea.

**Laugarren.-** Batzorde bakoitza, Udalean ordezkariak duten talde politiko guztietako ordezkariak dagokien proportzioan eskuhartzen dutela eratu izango da.

**Bosgarren.-** Horren ondorioz, batzorde guztiak zortzi zinegotziz osatuta egongo dira eta banaketa ondorengo izango da:

E.AJ.-P.N.V./E.Akoak. ....	3
E.H.koak .....	2
(PSOE)-PSE-EE/PSOE.koak ..	2
P.P.koak .....	1

**Seigarren.-** Talde politiko bakoitzak batzorde bakoitzean izango dituen ordezkarien izendapen zehatza, Alkatetzako ebazpen bidez egingo da, talde politiko bakoitzeko bozeramaileak idatziz proposamena eginda.

**Zazpiigarren.-** Herritarren partaidetzari ere leku ematearren, batzorde bakoitzean, zinegotzi ez diren ordezkariak ere sartu ahal izango dira, aldeztatik batzordeburuari adierazita.

**Zortzigarren.-** Batzorde bakoitzeko batzordeburutza eta bere erantzukizuna, EAJ-PNV/EA taldeari ematen zaio.

**Bederatzigarren.-** Batzorde bakoitzeko batzordeburuaren izendapena, Alkatetzako dekretu bidez egingo da.

**Hamargarren.-** Batzorde bakoitzaren eginkizunak eta funtzioak, proposamen honen eranskinean izendatzen diren gaiekin lotuta egongo dira.

**Hamaikagarren.-** Batzordeen funtzionamendua, erakunde lokalen Antolaketak, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Erregelamenduko 134. artikulutik 138.era arte ezarrita dauden arauak dituzkoak izango dira.

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: "Orain arte zegoenarekiko aldatu dena, zera da: ingurugiroko arloa hirigintza batzordearen barne gelditzea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Jose Luis Elorza ((PSOE)-PSE-EE/PSOE) jaunak: "Alkateak aipatutakoa ez da aldaketa bakarra. Izan ere zortzigarren puntuan esaten da, batzorde bakoitzeko batzordeburua eta bere erantzukizuna, EAJ-PNV/EA taldeari ematen zaio. Hori orain lau urte ez zen horrela izan. Dena dela aipatu nahi nituzke gutxienez hiru gauza eta horiek aldatzea proposatu. Hirugarren puntuan, batzordeak astero egiteari buruz, nire ustez plenoarekin proposatzen den argudio berdina eman liteke. Batzorde guztiak ez dira astero biltzen. Normalean bai, baina gairik ez badago ez du sentzurik biltzea. Abuztuan, gabonetan eta horrelakoetan ez dira bilerarik egiten. Orduan plenorekin bezala gutxienez hilabete behin planteatu beharko litzateke eta batzorde bakoitzak erabaki dezala astero edo hamabostero egitea. Hori askoz errealagoa izango litzateke, hemen esaten dena baino. Mi propuesta sería: "se celebrarán sus sesiones ordinarias, con periodicidad semanal, quincenal o como mínimo una vez al mes."

Zortzigarren puntuak berriz esaten du, batzorde bakoitzeko batzordeburua eta bere erantzukizuna, EAJ-PNV/EA taldeari ematen zaio.

Hor dago elemento formal bat, zeren eta gero ikusten den moduan, batzorde lehendakaria izendatzeko ahalmen legala alkateak du. Gure ustez puntu hau hemen jartzea ez du inolako sentsurik. Gainera beste arrazoi politiko bat dago. Alkateak komentatu du alde aurretik, oraindik dena erabaki gabe dagoela nahiz eta proposamena egin. Beraz, zortzigarren puntua jartzea ez da batere logikoa, gero bederatzigarrenean esateko alkateak batzordeburuak izendatuko dituela dekretu bidez. Nik proposatuko nuke zortzigarren puntua kentzea.”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Beti egin da horrela. Legalki ez balitz beharrezkoa ere, hasieran esan dudana bezala, batzorde guztiak koalizioaren eskuetan egongo dira eta azkenean gai formal bat besterik ez den, mantendu egingo dugu. Ez diot garrantzirik ematen”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Sugerentzi moduan zera esan nahi dut: zortzigarren puntua bederatzigarren jartzen bada eta alderantziz ez dago arazorik.”

Jose Luis Elorza ((PSOE)-PSE-EE/PSOE) jaunak: “Suposatu dezagun datorren hilean akordio politiko batera iristen garela eta horren arabera erabakitzen da beste talde politiko norbait batzordeburu izendatzea. Horrek suposatuko luke zortzigarren puntu hau beste udalbatzar batean aldatzea eta ez bakarrik alkatearen dekretua ematea izendapenarekin.”

Idazkariak esan du, alkateak duela eskurantz batzordeburuak izendatzeko ebazpen baten bitartez eta aldaketaren bat izaten bada, udalbatzarrari ebazpen horren berri eman behar zaiola, baino udalbatzarrari ez dagokiola horri buruz ezer erabakitzea.”

Jose Luis Elorza ((PSOE)-PSE-EE/PSOE) jaunak: “Guretzat garrantzia badu, zeren eta horren arabera alde edo aurka bozkatu dugu. Gu ez gaude ados lehendakaritza guztien ardura EAJ-PNV/EA gain izatearekin.”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Guk proposatzen dugu zortzigarren puntua kentzea.”

Jose Luis Elorza ((PSOE)-PSE-EE/PSOE) jaunak: “Hamargarren puntuan berriz esaten du, batzorde bakoitzaren eginkizunak eta funtzioak, proposamen honen eranskinean izendatzen diren gaiekin lotuta daudela. Orokorki ados gaude, baina txosten hau ez dakit zenbait urteetan ez da berrikusi, oraingoan ere bakarrik data aldatu zaio. Hemen zahartuta dauden eta orain horrela ez diren gauzak daude. Fotokopiak kalidade hobegorekin egitea eskatzeaz gain, uste dut txosten hau nahiz eta onartu, epe motzean berrikusi egin beharko litzatekela, zeren eta hemen azaltzen dira ia batzordeen

konpententziak ez direnak. Beraz, nik proposatuko nuke onartuz ezker, epe motz batean berriro ere Udalbatzarrera ekartzea berrikusita.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Puntu honetan badugu zer esana. Lehenengo esan, aurreko legealdian esaten genuen bezala, ez gaude ados ingurugiro batzordea hirigintza batzordearekin bat egitea, honek suposatzen duelako argi eta garbi ingurugiroari ematen zaion garrantzia. Gaur egun ez badu garrantzirik ez da izango ingurugiroko batzordeak zer eginik ez zuelako izan, baizik eta behar den bezala gai honi ez zaiolako heltzen.

Bestalde puntu desberdinetan aipatzen diren prozedura kontuei buruz esan, ez dela behar bezala ulertzen bai batzorde funtzioa eta batzordekin herritarrek duten relazioa. Gu ez gara sartzen batzordeak astero edo hamabostero izan behar diren esaten, gaiak agintzen dutelako bilerak noiz egin behar diren. Ez zaigu inondik ere iruditzen batzordeburuari ematen zaizkion atribuzioak. Ez da zuzena batzordeburuen esku egotea bilerak egiteko eguna eta ordua finkatzea, kontuan izanda behin baino gehiagotan batzordeburu hauek erritmo bat dutela eta batzordera joateko aukera gehiena beraiek izaten dutela. Beraz, iruditzen zaigu bilera hauen maiztasunari buruz batzordekide guztiak zer esana izatea, hau da, denon artean erabakitzea. Baina hori, hemen aipatzea ere zuzena iruditzen zaigu eta ez azaltzen den moduan azaltzea.

Laugarren puntuan esaten denean, batzorde bakoitza, Udalean ordezkari-taldea duen talde politiko guztietako ordezkariak dagokien proportzioan eskuhartzen dutela erabakitzea egongo dela, praktikan beste proportzio batzuk azaltzen dira. Guk pentsatzen dugu batzordeak irekiak izan behar direla eta batzordetara nahi duenak joan daitekeela, baina errealitateak erakusten digu interesa duenak joaten dela. Beraz gaiak interesa sortzen badu ez zaigu iruditzen hemen azaltzen diren proportzioak mantendu behar direla. Hemen aipatutako legediarekin enpresa pribatu baten administrazio kontseiluaz ari garela eta ez zaigu iruditzen udalean horrelako parametroak erabili behar ditugunik. Ez dugu ikusten, demokrazi partehartzaile eta demokrazi ordezkari-taldeen artean dagoen diferentzia bereizten dezutenik. Kudeaketarako herritarrak ematen digute guri ahalmena, baina orokorrean herritarrek beti ateak irekiak izan behar dituzte eta horren ondorioz batzordeak irekiak izan behar dira. Hori guztiagatik, gure botoa aurkakoa izango da.”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Nosotros seguimos manteniendo la propuesta de que las comisiones sean semanales. Reconozco que has venido muy diligente. Es la misma propuesta que hace cuatro años y la dinámica anterior de las comisiones era parecida a la actual. Nosotros no hemos entrado al detalle de las formalidades del documento. En respuesta al

representante del ((PSOE)-PSE-EE/PSOE) y de EH, decir que si bien en algún momento tiene que haber un orden determinado, ya que las normas se hacen para los supuestos de conflicto o discordia, la realidad es que la periodicidad de las comisiones, la forma de adoptar acuerdos en ellas, la participación de los ciudadanos en las mismas, el horario en algunos casos en función de las necesidades de los ciudadanos se han cosensuado permanentemente en las comisiones. Eso no quita para que haya un patrón mínimo en el que cuando haya un conflicto haya que mantener unas mayorías. No pretende ser una propuesta que pretenda imponer nada a nadie, simplemente es un marco mínimo de referencia. Respecto al octavo punto estoy de acuerdo en eliminarlo. En lo que al décimo se refiere, es pura formalidad y no le vamos a dar mayor importancia. Si se insiste en ello revisaremos el documento y lo revisaremos.”

Jose Luis Elorza ((PSOE)-PSE-EE/PSOE) jaunak: “Es pura formalidad a efectos de documento, porque seguramente no se vuelve a revisar hasta los próximos cuatro años, pero yo tengo una duda, esto es, si un ciudadano tiene un conflicto con el Ayuntamiento en relación con alguno de los temas aquí señalados, y hay una demanda judicial ¿qué ocurre?”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Un ciudadano puede tener alguna queja con respecto algún tema que no sea competencia municipal, pero eso no obsta para que en la comisión se analice ese tema. El Ayuntamiento unilateralmente no puede asumir competencias que no le corresponden.”

Jose Luis Elorza ((PSOE)-PSE-EE/PSOE) jaunak: “Un ejemplo concreto, el tema de las ratas. Supongamos que un vecino es atacado por una rata y demanda al Ayuntamiento por ello. ¿Puede prosperar o no?”

Idazkari andreak: “Es una pregunta complicada. A mi entender la competencia se encuentra compartida.”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Horrelako kasuetan zalantza juridikoaren bat egongo balitz, begiratu egingo litzateke. Dokumentuan bakarrik esaten da, batzordeak hor aipatzen diren gaiei buruz, informatu egingo dutela. Besterik ez.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Edozein kasutan ere erantzukizuna beti alkatearena izango litzateke.”

Jose Luis Elorza ((PSOE)-PSE-EE/PSOE) jaunak: “Esto es un caso extremo, pero como hasta dentro de cuatro años no se va a volver a mirar, por eso pido que se revise y se ponga al día.”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Proposamena zetorren moduan gelditzen da, zortzigarren puntua ezik. Hau kendu egiten bait da.”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Alde: 11 (EAJ-PNV/EA, (PSOE)-PSE-EE/PSOE)

Aurkako botoak: 3 (EH)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutoarekin onartu da proposamena, zortzigarren puntua ezik, kendu egin delako.

#### **4- UDAL ORDEZKARIAK.**

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak proposamenaren berri eman du:

“Udalbatza ordezkatura egon behar duen organo kolegiatueterako, ondorengo zinegotzien izendapena egitea proposatzen da:

#### **Tolosako Eskualdeko Abere-hiltegia**

Titularrak: Patxi Plazaola Muguruza J.  
Jon Berbel Aiestaran J.

Ordezkoak: Jon Jauregi Bereziartua J.  
Jose Intxausti Mujika J.

#### **Sasieta mankomunitatean:**

Titularrak: Jon Berbel Aiestaran J.  
Patxi Plazaola Muguruza J.

Ordezkoak: Jon Jauregi Bereziartua J.  
Jose Intxausti Mujika J.

#### **Enirio-Aralar mankomunitatean**

Titularra: Patxi Plazaola Muguruza J.  
Ordezkoa: Jon Berbel Aiestaran J.

#### **Goierriko Mendi Nekazaritza Elkartean**

Titularra: Patxi Plazaola Muguruza J.

### **Ur-partzuergoan**

Titularra: Jon Jauregi Bereziartua J.  
Ordezkoa: Patxi Plazaola Muguruza J.”

Jose Luis Elorza ((PSOE)-PSE-EE/PSOE) jaunak: “Alkateak lehen esan du erabakitzeaz dauden gaiak aurrera eramateko egiten dela proposamena. Guk uste dugu gauzak beste modu batean planteatzea bazegoela. Gure ustez oraingo proposamena seguraski luzarorako izango da. Talde politiko bezala proposamena ez dugu gustoko. Osatzen den gobernu politiko indar gutxiago du eta hoberuntz joan ordez, hori herriarentzat atzera pausoa ematea da. Beraz, aurka bozkatu dugu.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Gobernu osaketa hau behin-behinekoa dela esan da eta guk hasiera batean horrela hartzen dugu. Dena dela aipamen batzuk egin nahi ditugu. Herriko bigarren indarra izanik, guk gure aldetik prest gaude egoera berri honetan udal-gobernuan parte hartzeko, pentsatzen dugulako denbora iritsi dela abertzale guztiok elkarlana egiteko Euskal Herria eraikitzeko. Ezberdintasunak izango dira, nola ez, gizarte antolakuntzan eta hainbat gaitetan, baina pentsatzen dugulako elkarguneak ditugula prest gaude gobernuan sartzeko. Beraz, gure eskaera izango litzateke gutxieneko gehiengo hau lehenbailehen Lizarra-Garaziren gehiengo gehiena bihurtu dadila. Gure jarrera abstentzioarena izango da.”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Egoera politikoa ez da lehengoaren berdina eta koalizioa osatzen dugun alderdiak apustua egin dugu bake-prozesua aurrera eramateko. Nik uste du bake-prozesu horretan denak lana egin nahiko dutela baina hor estrategia diferenteak daude. Garbi dagoena da prespektiba horretatik egoera asko aldatzen dela, ikusirik alderdien programa politikoak. Negoziaketa luzea izango da, gaia erraza ez delako, baina merezi du. Sentsu horretan gobernu hau aurrekoa baino aulagoa da, baina pleno hau egitearen arrazoia, herriko arazoei aurre egitea da. Behar bada beste mekanismo batzuk egon daitezke Udala martxan jartzeko, baina guk erabaki hau hartu dugu tinko lanean berehala hasteko.”

Besterik gabe bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (EAJ-PNV/EA)

Aurkako botoak: 3 ((PSOE)-PSE-EE/PSOE)  
Abstentzioak: 3 (EH)

Aldeko botoak aurkakoak baino gehiago direnez, onartu egin da proposamena.

## **5- ALKATETZAKO EBAZPENAK**

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak ebazpen hauen berri eman du:

- Alkateordearen izendapena eta gobernu batzordeko partaideen izendapena.

### **“ALKATETZAREN EBAZPENA**

Gaia: **Alkateordea eta gobernu batzordeko kidea izendatzea.**

Alaktetza honek, legeriak ematen dizkidan eskurantzak erabiliz eta Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzeko dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,2 eta 23,1 artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 41,3, 46,1 eta 52,2 artikulua dioenaren arabera, ondorengo

### **EBAZTEN DU**

**Lehenik.** Lehen Alkateorde eta Gobernu Batzordeko kidea Josi Insausti Mujika jaunari izendatzea, Udal honetan ordezkari den EAJ-PNV/EA talde politikoko zinegotzia bera, indarrean dagoen udal arauterik ematen dizkion eskurantza eta prerrogatiba guztiekin.

**Bigarren.** Ebazpen honen berri zinegotzi interesatuari ematea. Udalbatzarra jakinaren gainean jartzea egiten duen lehenengo bileran eta aldi berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

### **“ALKATETZAREN EBAZPENA**

Gaia: **Alkateordea eta gobernu batzordeko kidea izendatzea.**

Alaktetza honek, legeriak ematen dizkidan eskurantzak erabiliz eta Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,2 eta 23,1 artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 41,3, 46,1 eta 52,2 artikulua dioenaren arabera, ondorengo

## **EBAZTEN DU**

**Lehenik.** Bigarren Alkateorde eta Gobernu Batzordeko kidea Arantxa Aseginolaza Azkargorta andreari izendatzea, Udal honetan ordezkari izan behar duen EAJ-PNV/EA talde politikoko zinegotzia bera, indarrean dagoen udal arauterik ematen dizkion eskurantza eta prerrogatiba guztiak.

**Bigarren.** Ebazpen honen berri zinegotzi interesatuari ematea. Udalbatzarra jakinaren gainean jartzea egiten duen lehenengo bileran eta aldi berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

- Batzorde txostengileetako batzordeburuen izendapena eta eskurantzen eskuordetza.

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak ebazpen hauen berri eman du:

### **“ALKATETZAKO EBAZPENAK**

#### **BATZORDE TXOSTENGILEETAKO BURUAK:**

- 1.- HAZIENDA ETA ONDARE-BATZORDEKOA: **Jose Antonio Guirado Tristan J.** (EAJ-PNV/EA)
- 2.- GOBERNAZIO-BATZORDEKOA: **Jon Jauregi Bereziartua.** (EAJ-PNV/EA)
- 3.- HIRIGINTZA ETA INGURUGIRO BATZORDEKOA: **Patxi Plazaola Muguruza** (EAJ-PNV/EA)
- 4.- KULTUR ETA HEZKUNTZA-BATZORDEKOA: **Arantza Aseginolaza Azkargorta A.** (EAJ-PNV/EA)

5.- GAZTERI ETA KIROL-BATZORDEKOA: **Jose Inazio Intxausti Mujika J.** (EAJ-PNV/EA)

6.- EUSKARA-BATZORDEKOA: **Patxi Plazaola Muguruza J.** (EAJ-PNV/EA)

7.- ZERBITZU- ETA SUSTAPEN-BATZORDEKOA: **Jon Berberl Aiestaran** (EAJ-PNV/EA)

8.- SANITATE- ETA GIZARTE-ONGIZATE BATZORDEKOA: **Ana Asla Egialde** (EAJ-PNV/EA)

#### ESKURANTZEN ESKUORDETZA

Antzizar kiroldegiko Fundazio publikoko lehendakaritza, **Jose Inazio Intxausti Mujika** zinegotzi J.ari eskuordetu zaio. (EAJ-PNV/EA)

Udal Euskaltegiko Fundazio publikoko lehendakaritza, **Patxi Plazaola Muguruza** zinegotzi J.ari eskuordetu zaio. (EAJ-PNV/EA)

Loinatz Musika Eskola Publikoko Fundazio patronatuko lehendakaritza, **Arantza Aseginolaza Azkargorta** zinegotzi A.ari eskuordetu zaio. (EAJ-PNV/EA)

Emakumezkoen arloko eskuordetza **Ana Isabel Asla Egialde** A.ari (EAJ-PNV/EA) eman zaio.”

Alkate jaunak, Jose Luis Elorza ((PSOE)-PSE-EE/PSOE) jaunak eskatuta hitza eman dio eta honela dio: “Se que no hay ruegos y preguntas por ser pleno extraordinario, pero como sugerencia y a título personal quisiera decir lo siguiente. He estado toda una legislatura completa, y todavía hay personas del Ayuntamiento de las que no conozco ni su nombre. Pediría al Sr. Alcalde que prepara una carpeta para cada concejal dando cuenta del organigrama del Ayuntamiento, ya que no tenemos por qué saber las tareas y responsabilidades que competen a cada cual.”

Eta besterik ezean bilera arratsaldeko zazpiak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.